



Batikano II-garren  
Batzarra'ren  
agiriak

**gizarte  
artu-emonetako  
bideak**

**GIZARTE**  
**ARTU-EMONETAKO BIDEAK**

**S. Anton'go Katekesia**

**Euskal-argitalpenak**

NIHIL OBSTAT

*Lic. Jesús Garay Isasi*

CENSOR ECCO.

**IMPRIMATUR:**

*Pablo, Obispo de Bilbao*

Bilbao, 30 de Junio de 1966

## ZU'ri:

Euskalerra gaixoa,  
Euskalerra laztana,  
zugaitik nire miña,  
zuretza nire lana.

Euskalerra doaka,  
Euskalerra maitea,  
gordeizu zure euskera,  
gordeizu siñistea!

Eliz-artzaiñak aztu  
zaitue, Euskalerra.  
Gaurkoan neu natortzu,  
odol, negar eta irri.

Euskalerra nire espa,  
Euskalerra nire egi.  
Euskalerra, erri zar.  
Euskalerra'k ba'legi!

---

A pesar de la extraña inactividad pastoral del Seminario y Comisiones diocesanas, respecto de las necesidades y anhelos del noble pueblo euskaldun, este librito ve la luz gracias al espíritu inquieto y generoso de varios sacerdotes de San Antón (Bilbao).  
N. del T.

## PAULUS EPISCOPUS

Servus Servorum Dei

Una Cum Sacrosancti Concilii Patribus

Ad Perpetuam Rei Memoriam

DECRETUM DE INSTRUMENTIS  
COMMUNICATIONIS SOCIALIS

### PROOEMIUM

1. Inter mirifica technicae artis inventa, quae hodiernis praesertim temporibus, Deo favente, humanum ingenium e rebus creatis deprompsit, peculiari sollicitudine Mater Ecclesia ea excipit ac prosequitur quae hominis animun potissimum respiciunt, quaeque novas aperuerunt vias cuiusvis generis nuntios, cogitata ac praecepta facillime communicandi. E quibus vero inventis ea eminent instrumenta, quae non modo singulos homines, sed ipsas multitudines totamque humanam societatem, natura sua attingere ac movere valent, sicuti prelum, cinematographum, radiophonia, televisio et alia huiusmodi, quae proinde instrumenta communicationis socialis merito vocari possunt.

Batzar Donearen Gurasoakaz Batera

Betiko Gomutagarritzat

Jaungoikoaren Otseinen Otsein

PAUL GOTZAIÑA'k

GIZARTE ARTU-EMONETAKO  
BIDEETZAZ ERABAGIA

### SARRERA

1. Jaungoikoa lagun, giza-adimenak gure sasoiari irazakietatik atara dituan teknika-asmakizun arrigarrien artean, giza-gogoari dagokiozanak eta albisteak, gogaiak eta aginduak errez zabaltzeko bide barriak urratu dabezanak batez be onartu ta biztu gura dauz Eleiza Amak. Olakoan artean nagusienak, euren izakeraz gizon bakarrengana ez ezik, lagunarte andiakana ta gizarte osoagana be onuraz eldu leitekezanak. Adibidez, izparringiak, zinea, irratia, urrutikustea ta olako beste asko. Guztiok arrazoiez deitu leitekez gizarte artu-emonetako bideak.

2. Novit quidem Mater Ecclesia haec instrumenta, si recte adhibeantur, humano generi valida praebere subsidia, cum multum conferant ad relaxandos et excolendos animos atque ad Dei regnum propagandum et firmandum; novit etiam homines posse ea adhibere contra divini Conditoris consilium et in suorum ipsorum iacturam convertere: immo materno angitur doloris sensu ob damna quae ex pravo eorum usu humanae consociationi nimis saepe orta sunt.

Quare Sacrosancta Synodus, Summorum Pontificum et Episcoporum, in re tanti momenti, vigilanti curae instans, suum esse censet quaestiones praecipuas tractare cum instrumentis communicationis socialis conexas. Confidit insuper suam doctrinam et disciplinam hoc modo propositam, non modo christifidelium salutem, sed etiam totius consortionis humanae progressui esse profuturam.

## CAPUT I

3. Catholica Ecclesia, cum ad salutem universis hominibus afferendam a Christo Domino constituta sit ideoque evangelizandi necessitate compellatur, sui officii partes esse ducit nuntium salutis, ope etiam instrumentorum communicationis socialis, praedicare hominesque de eorum recto usu docere.

Ecclesiae ergo nativum ius competit quodvis horum instrumentorum genus, quatenus ad christianam educatio-

2. Ba-daki Eleiza Amak tramankulu ta zer guztiok, zuzen erabilli ezkerok, laguntza ederra egiten dautsoela gizadiari. Gogoak lasaitu ta lantzeko ta Jainko-erreinua zabaldu ta sendotzeko oso egokiak dira-ta. Ba-daki, gainera, gizonak Jainko gure Egillearen asmoen aurka erabilli legikezala ta euren kaltetan bere bai. Geiago oraindik, sarri askotan bideok oker erabiltetik giza-batzari sortu yakozan kalteakaitik arduratan dago, ama baten antzera.

Aita Santuen eta Gotzaiñen arreta andiari jarraiturik, ain arazo garrantzitsuan, Batzar Done onek bere eginbear bezela artzen dau gizarte artu-emonakaz zer ikusi dauken gauzak arakatzeta. Gainera, era orretan azaldutako bere irakaspen ta aginduak kristauen eta mundutar guztien onerako izango diralakoan dago.

## LENENGO ATZALBURUA

3. Gizon guztiak gaizkatzeko Jesukristo gure Jaunak sortutako Eleiza Orokorrak, Barri Ona zabaltzera bear-turik dago-ta, gizarte artu-emonetako bideak erabilli bear ditu bere gaizkakundea aldarrikatzeko ta baita gizonak bideok zuzen ibilteko eskolatu be egin bear ditu.

Kristau-azibidean ta arimen salbazio-lanean bearrezko ta probetxuzko diran edozein zabalbideak erabilteko eskubidea dau Eleizak. Beraz, Eleiz-artzaiñak eleiztarrak

nen omnemque suam de animarum salute operam sunt necessaria vel utilia, adhibendi atque possidendi; ad Sacros vero Pastores munus pertinet fideles ita instituendi atque moderandi uti iidem, horum etiam instrumentorum auxilio, suam totiusque humanae familiae salutem ac perfectionem prosequantur.

Ceterum, laicorum praesertim est huiusmodi instrumenta, humano christianoque spiritu vivificare, ut magnae humani convictus expectationi divinoque consilio plene respondeant.

4. Ad recte haec instrumenta adhibenda omnino necesse est ut omnes, qui iisdem utantur, ordinis moralis normas noscant et fideliter in hac provincia ad effectum deducant. Rerum materiam ergo considerent quae, pro peculiari cuiusque instrumenti natura, communicantur; simul vero adiuncta seu circumstantias omnes, hoc est finem, personas, locum, tempus ceteraque prae oculis habeant quibus ipsa communicatio perficitur quaeque eiusdem honestatem possunt mature, vel prorsus novare; inter quae numeratur modus agendi uniuscuiusque instrumentorum proprius, eorum scilicet vis, quae tanta esse potest ut homines, praesertim si imparati sint, eandem animadvertere, imperio regere ac, si res ferat, reicere, difficulter valeant.

5. Praecipue vero necesse est ut omnes quorum interest rectam de horum instrumentorum usu conscientiam

eskolatu ta zuzendu bear dabez, zabalkunde-bideon laguntzaz ere euren eta gizadi osoaren osasuna ta osotasuna lortu dagiezan.

Orrezaz gainera, erri-gizonai dagokie zabalkunde-bideok gizatiar eta jainkotiar kutsuz betetzea, giza-batzaren itxaropen andia ta Jainkoaren asmoak bete daitezana.

4. Bideok zuzen erabilteko, bear-bearrezkoa da orretan dabiltzan guztiak zilligiztiaren legeak ezagutu ta arlo orretan betetzea. Begiratu begie ondo, zein dan artu-emonetako bide bakoitzean emoten dan gaia. Euki dagiezala begien aurrean zertzelada guztiak, au da, elburua, notiañak, tokia, aldia ta zabalkundea bera osotzen daben besteak; guztiok, bada, beraren ontasuna aldatu edo ondatu leikie. Orrein artean, zabalbide bakoitzaren berarizkotasuna, au da, bakoitzaren indarra. Gerturik egon ezik, ozta-ozta nabaitu, menperatu edo, bear danean, alboratu egiteko bestean andia izan leiteke-ta.

5. Artu-emonetako bide guztiok erabiliko dabezanak eritxi zuzenekoak izan bear dabe, batez be gure egunetan eztabaida gogorretan sartzen diran gaitetan.

sibi efforment, praesertim quod attinet ad nonnullas quaestiones nostra aetate acrius agitatas.

Prima quaestio informationem, quam aiunt, spectat, seu nuntiorum exquisitionem atque evulgationem. Patet, profecto, eam, ob hodiernae humanae societatis progressum atque ob arctiora vincula inter eiusdem membra, perutilem atque plerumque necessariam evasisse; publica enim et tempestiva eventuum rerumque communicatio plenior et continuam eorum notitiam praebet singulis hominibus, ita ut ipsi ad bonum commune efficaciter conferre possint omnesque auctiorem totius civilis societatis profectum facilius promoveant. Inest ergo in societate humana ius ad informationem de iis quae hominibus, sive singulis, sive societate conjunctis, secum dum uniuscuiusque condiciones, convenient. Huius tamen rectum iuris exercitium exoptulat ut, quoad suum obiectum communicatio sit semper vera atque, iustitia et caritate servatis, integra; praeterea, quoad modum, sit honesta et conveniens, scilicet leges morales hominisque legitima iura et dignitatem, cum in nuntiis quaeritandis tum in evulgandis, sancte servet; non omnis enim scientia prodest «caritas vero aedificat» (I Cor. VIII, I).

6. Secunda quaestio rationes respicit intercedentes inter artis, ut aiunt, iura et legis moralis normas. Cum increbrescentes de hac re controversiae non raro ortum ducant a falsis doctrinis de ethica et aethetica, Concilium

Ta orra lenengo arloa, albistaritza, au da, barriak nundik atara ta zelan zabaldu. Gaurko gizarteak egin dauan aurrerapenagaitik eta gizarte orren lagunen arteko lokarri andiakaitik, oso probetxugarria ta geienetan bearrezkoa be ba-dala aitortu bear. Gertaeren barri agirian eta be-realakoan emoteak, euron ezagutza ohea emoten dautse gizonai unean-unean-eta. Era orretan, danok bear ederra egin leikie, danon onerako ta gizadi osoaren aurrerapenerako. Gizonai, banan edo baltsan artuta, dagokiezan gauza guztien barri izateko eskubidea giza-batzan bertan aurkitzen da, bakoitzaren nolakotasuna kontuan eukita. Zuzenbidea ta maitasuna gorde ezkeru, guztizkoa izan bear dau barri emote onek eta beti be egiazkoa, eskubide ori ondo beteko ba'da. Zintzo ta egoki egin bedi, barriz; au da, albisteak jasotean eta zabaldukeran moral-legeak eta gizonaren eskubideak eta duintasuna gorde daitezala. Jakintza guztia onuragarri ez da; «maitasuna, barriz, egikorra». (1 Kor. VIII, 1)

6. Ta ara bigarren arloa: antzearen diralako eskubideak eta zilligizti-arauak. Onetzaz sortzen diran eztabaidak, askotan, etika ta asetikazko uste okerretatik datoz. Ori dala-ta, Batzarrak benetako zilligiztiaren nagusi-

obiectivi ordinis moralis primatum absolute omnibus tenendum edicit, quippe qui ceteros omnes rerum humanarum ordines, artis non excepto, licet dignitate praestantes, unus superet congruenterque componat. Solus enim ordo moralis hominem, Dei rationalem creaturam et ad superna vocatum, in tota ipsius natura attingit idemque, si quidem integre fideliterque servetur, ad perfectionem et beatitudinem plene assequendam ipsum adducit.

7. Postremo, mali moralis narratio, descriptio vel repraesentatio possunt sane, etiam ope instrumentorum communicationis socialis, inservire ad hominem penitius cognoscendum explorandumque, ad veri bonique magnificentiam manifestandam atque extollendam, opportunioribus ceterum effectibus dramaticis obtentis; attamen, ne damnum potius quam utilitatem animis afferant, legibus moralibus omnino obtemperant, praesertim si agatur de rebus quae debitam reverentiam exigant, vel quae hominem, originali labe vulneratum, facilius ad pravas cupiditates incitent.

8. Cum publicae opiniones hodie vim et auctoritatem maximam exercent in omnium ordinum civium vitam, sive privatam sive publicam, necesse est ut omnia societatis membra sua iustitiae et caritatis officia, hac quoque in provincia, adimpleant; itaque, istorum etiam instrumentorum ope, contendant ad rectas publicas opiniones efformandas atque pandendas.

tasuna guztiak onartu bearrekotzat jotzen dau. Beste gauzen arlo guztiak, antzearena barru, andiak izanda bere, beronek gainditu ta egokiro zuzentzen ditu. Zillegiztiak bakarrik artzen dau bere barruan gizona, Jainkoak egiña ta goiko gauzetara deitua. Zillegizti au zintzoro bete ezkeru, osotasun ta betetasunera doa gizona-ta.

7. Moral-kaltearen azalpen-agerpenak, gizarte artu-emonetako bideoi eskerrak, gizona sakonago ezagutzen lagundu leikie. Baita ere, onaren ta ederraren anditasun gorengo agertzeko, antze-joku berebizikoak jarrita. Alan be, gogoai onura baiño geiago kalte egin ez dagioen, moral-legepean egin bear dira, batez be, lotsa andiko gauzak ba'dira edo jatorrizko obenaz jota dagoan gizona gurari txarretara ba'daroe.

8. Erritarren eritxiak, gaurko egunean, indar andia dabe, bai norberaren bizitzan bai guztienean. Orregaitik bearrezkoa da gizarte-lagun guztiak euren betebearrak gordeztea, zuzenbidezkoak eta maitasunezkoak, gauza oneitan bere bai. Beraz, zabal-bideon laguntzaz, saiatu beitez erritarren agiriko eritxiak bear dan moduan eratzten eta edatzen.



9. Peculiaria officia obstringunt receptores omnes, lectores scilicet, spectatores et auditores, qui communicationes his instrumentis diffusas, personali ac libera electione, recipiunt. Recta enim electio postulat ut iidem omnibus quae virtute, scientia et arte praestent plene faveant; ea autem vitent quae vel sibi spiritalis detrimenti causa vel occasio fiant, vel alios pravum exemplum in periculum inducere possunt, vel bonis communicationibus obstant malasque promoveant; quod plerumque fit pretium praebitoribus solvendo qui ob oeconomicas dumtaxat rationes haec instrumenta adhibeant.

Ut ergo iidem receptores legem moralem adimpleant, officium ne praeterminant sese tempestive certiores faciendi de sentiis quae his in rebus a competenti auctoritate ferantur, atque eisdem secundum rectae conscientiae normas obsequendi; ut vero minus rectis suassionibus facilius obstant, bonis autem plene faveant, curent suam conscientiam aptis auxiliis dirigere atque instituere.

10. Receptores, praesertim iuniores, curent ut in usu horum instrumentorum moderationem et disciplinam assuescant: studeant insuper ut res visas, auditas, lectas penitus intellegant; cum educatoribus ac peritis de iisdem disserant et rectum iudicium proferre ediscant. Parentes vero suum esse officium meminerint sedulo invigilandi ne spectacula, folia et alia huiusmodi, quae aut moribus infensa

9. Albisteak jasoten dabezan guztiak berarizko egin-bearrak daukez: artu-emonetako bide onetatik albisteak jasoten dabezan irakurleak, ikusleak eta entzuleak, norberaren aukeran dagoz-eta, onbideari, jakintzari ta antzeari mesede egiten dautsonari lagundu bear dautsoe. Euren-tzako naiz bestcentzako gogoaren kaltegarri edo galgarri dan guztia baztertu begie. Bardin-bardin, artuemon onai kalte edo gaitzoi bide egiten dautsen guztia. Artu-emonetako bideak diru-bide utsa egin dabezanai lagunduaz batez be, jazoten da au.

Beraz, albiste-artzailleak moral-lega bete dagien, arduratu beitez gai ontaz agintariak emoniko eritxiak jakiteko ta barru zintzoz euroi jarraitzeko. Bada-epadako eritxiai jarkitzeko ta zuzen diranai jarraitzeko, barriz, egin begiez alegiñak euren kontzientziak era egokiz argitzen eta zuzen erabilten.

10. Albista-artzailleak, batez be gazte-jendeak, izan daitezala orretan neurribidetsuak eta mentsuak. Irakurri, entzun edo ikusi dabena ondo ulertzeko saia beitez. Jardun dagiela irakasleekin eta orretan aituak diranekin, eritxi zuzena izan dagien. Gurasoak, euren aldetik, ibil bediz arduraz, ikuskizun, irakurkizun eta antzeko jardukizun guztiak, siñismen edo moralaren kaltetan ba'dira,

sint, domestici convictus limen intrent, neve filii familias alibi talibus occurrant.

11. Praecipuum morale officium quoad rectum instrumentorum communicationis socialis usum respicit diurnarios, scriptores, actores, scaenarum artifices, effectores, diribitores, distributores, exercentes et venditores, criticos ceterosque qui quocumque modo in communicationibus efficiendis et transmittendis partem habeant; omnino enim patet quae et quam gravis momenti officia iis omnibus sint tribuenda in hodiernis hominum conditionibus, cum ipsi, informando atque incitando, humanum genus recte vel pessum ducere possint.

Eorum itaque erit oeconomicas, vel politicas, vel artis rationes ita componere ut eadem bono communi numquam adversentur; quod ut expeditius obtineant, ipsi laudabiliter nomen consociationibus dent ad suam professionem spectantibus, quae suis membris —etiam, si opus fuerit, inito foedere de codice morali recte servando— legum moralium reverentiam in suae artis negotiis et officiis imponant.

Semper autem memores sint magnam partem lectorum et spectatorum e iuvenibus constare, qui indigent prelo atque spectaculis quae honesta oblectamenta praebeant atque ad altiora animos alliciant. Curent insuper ut communicationes de rebus ad religionem spectantibus personis

etxean sartu ez daitezan eta semeak beste inun ikusi ez dagiezan.

11. Gizarte artu-emonak dirala-ta, zuzen erabiltera bearturik dagoz, danen gainetik, periodistak, idazleak, antzerkilariak, zinelariak, egille naiz saltzailleak, kritikariak eta zelan edo alan berri emotean zer ikusi daben guztiak. Argi baiño argiago dago zelako garrantzia daben guztiok gaurko egokeran; barri emoille ta zabaltzailleok zuzen edo oker eroan leikie gizartea-ta.

Diru, politika edo antze-kontuak ez dakiozala kaltegarri izan danon onari; orra euren zeregiña. Egiteko ori obeto betetzearren, alkartu daitezala norberari ondoen datorkion eran, moral-legeak betetzera beartzen dabezan bazkumetan, bakoitzaren arloan. Bear ba'litz, asikeratik moral-arau bat gordetzeko itz emonaz.

Euki dagiela gogoan, irakurle ta ikusle geienak gazteak dirala, zintzotasunera ta oberantza bultzatzen dabezan irakurkizun-ikuskizunen bearrean aurkitzen diranak. Erlijioari dagokiozanak, gainera, egon daitezala gizon jakin-

dignis ac peritis tractanda concedantur et debita reverentia perficiantur.

12. Civilis auctoritas hac in re peculiaribus officiis obstringitur ratione boni communis, ad quod haec instrumenta ordinantur. Eiusdem enim auctoritatis est, pro suo munere, informationis veram iustamque libertatem, qua hodierna societas ad sui profectum omnino eget, praesertim ad prelum quod attinet, defendere ac tutari; religionem, culturam, optimas artes fovere; receptores, ut suis legitimis iuribus libere frui possint, tueri. Praeterea civilis potestatis est ea incepta adiuvere quae, licet praesertim iuventuti maxime sint utilia, suscipi secus non possunt.

Denique eadem publica potestas, quae legitime operam dat civium valetudini, tenetur officio, per legum promulgationem ac sedulam executionem, iuste et vigilanter consulendi ne ex horum instrumentorum pravo usu gravia discrimina publicis moribus et societatis progressui obviant. Per hanc vigilem curam minime singulorum vel coetuum comprimitur libertas, praesertim si validae deficiant cautiones ex parte eorum qui, ex suscepto munere, haec instrumenta adhibent.

Peculiaris autem tutela exerceatur ad iuniores defendendos a prelo et spectaculis quae eorum aetati noxia sint.

tsu ta zintzoen eskuetan, bear dan moduan zuzendu daitezcan.

12. Erri-agintariak berariz lotuak dira gauza oneitan, guztien onerako dira-ta. Agintaritza dabe-ta, albisteak emoteko egiatzko azkatasuna zuzendu bear dabe, batez bere izparringietan, gaurko gizartea orretxen premiñan dago-ta, ezer onik atarako ba'dau. Era berean, erlijioa, kultura ta ariketa on guztiak zaindu bear dabez eta orreñ artzailleak euren euskubideakaz balia daitezcan ardura artu. Gazteentzako apropos diran jarduketak, eta bestela eutsi-eziñekoak diranak, erri-agintariak lagundu bear dabez.

Azkenik, erritarren onean ari diran agintariok legeak emon eta zaindu bear dabez, zuzentasunez eta oarpenez. artu-emon bide oneitatik, txarto erabilten diralako, erriko ekanduentzat eta gizartearen aurrerapenarentzat kalterik sortu ez daiten. Arreta ta ardura au dala —ta, ez da zapaltzen notiñen edo lagunarteen azkatasuna, batez bere, berrizanez artu-emonetako bideok darabillezcanak bear bezela ari diranean.

Gorde beitez, bereziki gazteak, euren adiñarentzat kaltegarri diran irakurgai ta ikuskizunetatik.

## CAPUT II

13. Omnes Ecclesiae filii communi animo consilio-que conentur ut instrumenta communicationis socialis nulla interposita mora et maxima adhibita industria, efficaciter in multiplicibus apostolatus operibus, prout rerum et temporum adiuncta exposcent, usurpentur, noxia incepta praecurrentes, illis praesertim in regionibus quarum moralis et religiosus progressus urgentiorem navitatem exquirat.

Sacri ergo Pastores suum munus in hac provincia, cum eorumdem ordinario praedicationis officio arte conexum, explere properent; laici quoque, qui in his instrumentis adhibendis partes habent, Christo testimonium reddere satagent, imprimis suis cuiusque muneribus perite et apostolico animo perfungentes, immo, pro sua parte, technicis, oeconomicis cultus artisque facultatibus actioni pastoralis Ecclesiae directe auxiliatricem praestantes operam.

14. Imprimis prelum honestum foveatur. Ad lectores autem christiano spiritu plene imbuendos, prelum etiam excitetur et provehatur veri nominis catholicum, quod scilicet —sive directe ab ipsa auctoritate ecclesiastica, sive a catholicis viris promotum et dependens— manifeste hoc animo edatur ut publicas opiniones iuri naturae et catholicis doctrinis praeceptisque consonas efformet, firmet

## II ATZALBURUA

13. Alegindu beitez Eleizaren seme guztiak, danak batera, gizarte artu-emonetako bideok luzatu barik eta arreta andienagaz erabilli daitezcan, apostolutza-era askotarikoetan, gure denporako berezitasunak eskatzen dabeenez. Olan ekiñaldi txarrai aurea artuko dautse, batez bere moral eta erlijio-aurrera-bearrak ardura andiagoa eskatzen daben lurraldeetan.

Itzaldi-irakaspenakaz ain loturik dagoan egiteko au bete dagiela gogotsu eleiz-artzainiak. Artu-emonetako bide-erabiltze onetan sarturik dabiltzan erri-gizonak ere, Kristo'ren aldekoak ager beitez, lenen ta bein, norberari dagokiozan arloak trebetasunez eta apostolutza-borondatez egiñaz. Orreraz gainera, euren aldetik, lagundu begioe eleizaren artzain-lanari, teknika, diruketa ta antze-eraketak eskeintzen dautsen neurrian.

14. Lenengo ta bein izparringi onak sortu bearrezkoak dira. Ta irakurleak kristau kutsuz osoro betetzeko, izparringiok izan daitezcala benetan katolikoak, izenez eta izanez. Eleiz-agintariak edo osterantzeko katoliko-gizonak sortuak ta eralduak, atara daitezcala berariz erritarren eritxiak izatezko eskubideaz ta eleiz-irakatsiaz baterakoak sortu ta sendotzeko. Eleizaren bizitzarekiko egipenak za-

atque promoveat, facta vero quae Ecclesiae vitam respiciant pervulget ac recte explanet. Moneantur autem fideles de necessitate catholicum prelum legendi atque diffundendi ad iudicium christianum sibi de omnibus eventibus efformandum.

Taeniolarum effectio et exhibitio ad honestam animi relaxationem, humanum cultum et artem utilium, imprimis autem earum quae iuventuti destinantur, validis omnibus auxiliis promoveantur et in tuto ponantur: quod praesertim fit opes atque incepta honestorum effectorum distributorum adiuvando ac simul coniungendo, pelliculas laude dignas criticorum consensu et praemiis commendando, catholicorum proborumque exercentium auditoria fovendo ac inter se consociando.

Itidem efficax adiuventum feratur transmissionibus radiophonicis et televisificis honestis, imprimis iis quae familiis sint consentaneae. Catholicae autem transmissiones sollerter foveantur, quibus auditores et spectatores ad vitam Ecclesiae participandam inducantur atque veritatibus religiosis imbuantur. Sollicite quoque, ubi oportuerit, excitandae sunt stationes catholicae; curandum vero est ut earum transmissiones convenienti perfectione et efficacitate praestent.

Consulatur insuper ut nobilis et prisca scaenica ars, quae iam per instrumenta communicationis socialis late propagatur, ad spectatorum humanitatem morumque conformationem contendant.

baldu begiez zuzenkiro adieraziaz. Eleiztarrai, barriz, kr. tau-papelak irakurri ta zabaltzeko esan bear yake, edozein gertaeraz eritxi zuzena izan dagien.

Gogo-atsedenerako diran zinekizunak egikeran eta zabalkeran, giza-lantzearen ta antzearen lagungarri dira-ta, gazteentzakoak batez be, ugaldu bediz era egikorrez eta onurakorrez. Orretarako berebiziko laguntza da, egikera ta saiakera garbiai indarra emotea, kritikalarien ustez sarigarri diran pelikulak goratuaz, Zinetegi-jaube katolikoak eta zintzoak alkartuz.

Orobat, lagundu bear yake irrati ta urrutikuzkin-saio onai, batez be sendientzako egoki diranai. Katoliko irratisaioak arreta andiz sortuazo bediz, euron bidez ikusleentzuleak Eleizaren bizian artukizun izan dagien eta kristiñau egiaz bat-bat egin daitezana. Bear dan lekuan, irratisaio katolikoak ere egin bear dira. Baiña, egitekotan, onak eta ongilleak daitezala.

Antxiñako antzerki-lan ederra be, ikusleen gizatasuna ta ekandu onak bide onetik eroateko moduan egin bedi, gaurko artu-emonetako bideoi eskerrak zabalkunde andia dauka-ta.

15. Ut necessitatibus nuper expositis provideatur, sacerdotes, religiosi necnon laici tempestive, instituantur, qui congrua peritia polleant in his instrumentis ad fines apostolatus moderandis.

Imprimis debent laici arte, doctrina et moribus instrui, multiplicato scholarum, facultatum et institutorum numero, ubi diurnarii, auctores cinematographeï et radiophonicarum televisificarumque transmissionum ceterique quorum interest, integram formationem, spiritu christiano imbutam, praesertim quoad doctrinam sociale Ecclesiae, nancisci possint. Scaenici quoque actores instituendi ac iuvandi, ut sua arte humanae societati convenienter prosint. Sedulo denique parandi sunt critici litterarii, cinematographici, radiophonici, televisifici ceterique, qui suam quisque scientiam optime calleant atque talia iudicia ferre edoceantur et incitentur in quibus semper ratio moralis in sua luce collocetur.

16. Cum rectus instrumentorum usus communicationis socialis, quae receptoribus praesto sunt aetate cultuque diversis, accommodatas et proprias requirat eorumdem receptorum institutionem atque exercitationem, incepta quae huic fini consequendo sint apta —praesertim si iunioribus destinentur— in scholis catholicis cuiusve gradus, in Seminariis necnon in apostolatus laicorum coetibus foveantur, multiplicentur, atque iuxta morum christianorum principia dirigantur. Quod ut promptius efficiatur, doctrinae

15. Gorago aipatu ditugun bearrizanak estaltzeko, apaizak, lekaideak eta erri-gizonak ere bai gertu daitezala. zabal-bideokaz apostolutza-lanak egokiro egiteko.

Erri-gizonak antze, irakaste ta oiturokaz ulertu bear dabe. Eskola, ikastetxe ta aztetxeak ugaritu-ala, berriketariak, zine-izlariak, irrati-urrutikuskin ta osteango jardun laria eskuratu dagiela aziera oso bat, kristau-giroan bildurik, eleizaren gizarte-irakaspenetan baitik bat. Antzerki-jokolariak bere, azi ta urgazi bear dira, euren ekiñaz gizarteari ona ekarri dagioen. Eleder-irizlariak, zine, irrati ta urrutikuskinarenak-eta arduratsu gertau bear dira, ba-koitzaren arloan aituak diranak, zillegiztiaren argia beti dagokion maillan ager daiten eritxiak emoteko gai ta griñatsu diranak.

16. Gizarte artu-emonetako bideok, zuzenkiro erabiliiak, adiñez eta jakitez bardinez diran jenteak dabez elburutzat. Guztiongan aziketa ta jakintza bevarizkoak bear dira. Orretara ezker, kristau-legea gordeta, orretara zuzenduta diran jardunkizun guztiak ugaldtu bear dira, gazteentzakoak batez be, edozein maillako kristau eskoletan, abadegai-etxeetan eta baita kaletarren apostolutza-bazkunetan be. Dan au lenbaitlen lortzeko, zabaldu ta

et disciplinae catholicae de hac re propositio ac explicatio in catechismo tradatur.

17. Cum prorsus dedeceat Ecclesiae filios desides pati verbum salutis alligari ac praepediri technicis moris vel expensis, ingentissimis sane, quae istorum instrumentorum propria sunt, monet haec Sancta Sinodus eosdem officio obstringi sustinendi et auxiliandi catholicas ephemerides, folia periodica atque cinematographica incepta, stationes transmissionesque radiophonicas et televisificas, quorum finis praecipuus sit veritatem evulgare et defendere atque christianae institutioni humanae societatis providere. Simul vero consociationes et singulos viros, qui in rebus oeconomicis vel technicis magna polleant auctoritate, instanter invitat ut suis opibus suaque peritia libenter haec instrumenta, quatenus veri nominis culturae et apostolatui inserviunt, largiter sustentent.

18. Quo autem Ecclesiae multiformis apostolatus circa instrumenta communicationis socialis efficacius roboretur, in omnibus orbis diocesis, Episcoporum iudicio, quotannis dies celebretur in qua fideles edoceantur de suis in hac rerum parte officii, invitentur ad preces pro hac causa fundendas et ad stipem ad eundem finem conferendam, quae scilicet in instituta et incepta ab Ecclesia in hac re promoti, sustentanda ac fovenda, iuxta orbis catholici necessitates, sancte impendatur.

azaldu daitezala kristau-ikasbidearen eskoletan gai onetazko katoliko irakaspen-arauak.

17. Erabilbideok berekin dabezan gastuak andiak diralako ta bear daben antzea zaila dalako, Eleizaren semeak saibazio-egiak lotuazoak ikusi-bearra lotsagarri litzake-ta, Batzar Done onek auxe gogoratzen dautse: kristau-izparringi, aldizkari, zine-ekintza, irrati ta urrutikuskin edatzailleai lagundu bear dautsela, egia zabaldu ta aldeztuteko ta gizarteari kristau azikera emoteko dira-ta. Era berean, ekintza ta dirutzaz altsuak diran bazkun naiz gizon bakarrai, zabalbideoi laguntza emoteko eskatzen dautse; euren ondasun ta trebetasuna gogotik orretan jarririk, apostolutza ta jakintzaren egiazko lagungarri baitira.

18. Gizarte artu-emonetan egiñiko apostolutza indartu daiten, mundu guztiko eleizbarrutietan egun bat aukeratu bear da urtean-urtean, Gotzaiñaren aburuz, eleiztarrak gai orretan dauken eginbearraren jakitun ipinteko ta beronen alde otoi egiteko. Orretarako emon bear daben dirua, Eleizak alderdi onetan sortutako ta eragindako gauzetan eralgi bearra da, zintzoki gero, katolikoak dabezan bearrianen arabera.

19. In sua suprema pastorali cura adimplenda circa instrumenta communicationis socialis praesto est Summo Pontifici peculiare Sanctae Sedis Officium.

Patres autem Concilii, votum «Secretariatus de Scriptis prelo edendis et de Spectaculis moderandis» libenter excipientes, Summum Pontificem reverenter rogant ut huius Officii munera et competentia ad omnia communicationis socialis instrumenta, prelo non excepto, extendantur, ascitis ex variis nationibus rei peritis, etiam laicis.

20. Episcoporum autem erit huiusmodi operibus et inceptis in propriis Dioecesibus invigilare eademque promoveri et quatenus ad apostolatam publicam spectent, ordinare, iis non exceptis quae religiosorum exemptorum moderamini subiciuntur.

21. Cum vero efficax pro tota Natione apostolatus unitatem consiliorum et virium requirat, haec Sancta Synodus statuit et mandat, ut Officia nationalia pro rebus preli, cinematographiei, radiophoniae et televisionis ubique constituentur omnique ope adiuventur. Horum ergo Officiorum praesertim erit consulere ut conscientia fidelium in his instrumentis adhibendis recte efformetur necnon quidquid in hac provincia a catholicis agitur fovere et ordinare.

In unaquaque Natione eorum moderatio peculiari Episcoporum coetui, vel alicui Episcopo delegato, concedatur;

19. Gizartearekiko artu-emonen gogo-zaindaritza ongi eroateko, Doipuruak berarizko lantegi bat eukiko dau.

Batzarraren Gurasoak, barriz, «Irarkola ta Ikuskizunetzazko» Idazkaritzaren guraria eurentzakotzat arturik, eskabide auxe egiten dautsoe Aita Santuari: Bazkun onen egiteko ta eskubideak beste zabalbideetan be, balio dagiela, izparringi-arazoak barru. Naziño guztietako jakitunak bertan sartuaz, erri-gizonak itxi barik, jakiña.

20. Gotzain bakoitzak, bere barrutian, zaindu ta bultzatu dagizala olako gauzak. Eta agiriko apostolutzagaz zer ikusirik ba'dabe, zuzendu dagizala, jarei diran erlijiosoen ardurapean dagozanak aztu barik.

21. Apostolutza naziño osoan onuragarri izan daiten, asmo-alegin guztiak batera joan bear dabe. Orregaitik Batzar Doneak erabagi au artzen dau: izparringi, zine, irrati ta urrutikuskin-gauzetan, Naziño-lan-olak eratu daitezala nunai, guztitariko laguntzaz. Lan-ola onein egitekoa zein? Eliztarren kontzientzia ekintza-bide orreitzaz arteza izan daiten eta Katolikoak sail onetan darabilen guztiguztiari eutsiteko ardura artu.

Naziño bakoitzean orren zuzenketa gotzain-batzordearen bateri edo ordezeko gotzain bateri egotzi bear yako.



in iisdem autem Officiis laici quoque partem habeant, qui catholicae doctrinae harumque artium periti sint.

22. Cum insuper eorumdem instrumentorum efficacia limites Nationum excedat, atque singulos quasi cives efficiat totius consortionis humanae, in hac provincia incepta nationalia inter se cooperentur etiam in ambitu internationali. Officia autem, de quibus in n. 21, operose adlaborent una cum sua cuiusque Consociatione catholica internationali. Hae autem Consociationes Catholicae Internationales a sola Sancta Sede legitime approbantur et ab eadem pendent.

#### CLAUSULAE

23. Ut universa huius Sanctae Synodi principia et normae de instrumentis communicationis socialis ad effectum deducantur, de expresso mandato Concilii, Instructio pastoralis edatur cura Sanctae Sedis Officii, de quo in n. 19, adiuvantibus ex variis nationibus rei peritis.

24. Ceterum confidit haec Sancta Synodus hanc suam institutorum et normarum traditionem libenter acceptam et sancte custoditam fore ab omnibus Ecclesiae filiis, qui idcirco, etiam his auxiliis utentes, nedum damna patiantur, salis lucisque instar, terram condiant ac mundum collustrent; insuper omnes bonae voluntatis homines, imprimis

**Orrelako lan-oletan erri-gizonak ere bear dira, irakaspen katolikoaren eta jardukizunen jakitun diranak.**

22. Jardun-bide onein etekiña, laterri-mugatik kanpora be edatzen da ta gizonak oro gizadi osoaren bizilagun bezela biurtzen dauz. Ori dala-ta arlo onen asmo guztiak, naziño batekoak izanda ere, naziño guztienakaz bateratsu bebilz. Goragoko zenbakian, 21-garrenean, aipatutako lan-olak naziño-arteko alkartasun egokienagaz batera jardun dagiela sendo lanean. Naziño-arteko alkartasun katolikuok, barriz, Erroma'ko Aulki Doneak bakarrik onartu leikez eta berari begira dagokez.

#### ONDORENAK

23. Batzar Done onen erabagi guzti-guztiak eta gizarte artu-emonetako bideetzazko arauak mamitu daitezcan, Erroma'ko Aulki Doneak artzain-agiri bat argitaratuko dau, 19-garren zenbakian esandako bazkunaren bidez, beste naziño batzuen jakitunen laguntzaz. Olantxe darabagi berariz Batzar onek.

24. Bestalde, Batzar Done onek uste dau Eleizaren seme guztiak irakatsi ta erabagi guzti oneik gogotsu onartu ta biotzetik beteko dabezala. Irakasbide ta jardunbide guztiok onartuz, kalterik artu ez eta, gatz eta argi izaki. lurra gatzitu ta lurbira argituko dabe. Gaiñera, borondate

eos qui haec instrumenta moderantur, invitat ut studeant eadem unice flectere in bonum humanae societatis, cuius sors magis in dies ab eorum recto usu pendet. Itaque, sicut priscis iam artium monumentis, novis etiam hisce inventis Nomen Domini glorificetur, secundum illud Apostoli: «Iesu Christus, heri et hodie, ipse et in saecula» (Hebr. XIII, 8).

---

**In Nomine Sanctissimae et Individuae Trinitatis Patris et Filii et Spiritus Sancti. Decreta, quae in hac Sacrosancta et Universali Synodo Vaticana Secunda legitime congregata modo lecta sunt, placuerunt Patribus.**

**Et Nos, Apostolica a Christo Nobis tradita potestate, illa, una cum Venerabilibus Patribus, in Spiritu Sancto approbamus, decernimus ac statuimus, et quae ita synodaliter statuta sunt ad Dei gloriam promulgari jubemus.**

Romae, apud S. Petrum, die V mensis decembris anni MCMLXIII.

Ego PAULUS, Catholicae Ecclesiae Episcopus.

oneko gizen guztiai, ekintza-bid oneik darabillezanai batez be, gizartearen onetan bakarrik erabilteko eskatzen dau-tse; gure gizartearen zori-ona, gero ta geiago, eurok zuzen erabiltefik eskegita lez dago-ta. Antxiñako erti-lanakaz bezela, gaurko asmakizun oneikaz bere, Jaunaren izena goretsia daiteke, Bidaliaren esanaren arabera: «Josu Kris-to atzo, gaur eta beti bat eta bera» (Ebertarra, XIII, 8).

Aita, Seme, Goteun, iru notin bana ta deunen izenean, Batikano Batzar Done ta Orokor onek eskubide osoz ar-tutako erabagiok, Gurasoak onartuak izan dira.

Eta Guk, Kristo'k emondako Bidali-almenaz eta Gu-raso gurgarriakaz batera, Goteunaren argiz, aintzat artu, sendotu ta argitalgarritzat jotzen doguz. Batzarrean artu-tako erabagiok, Jaungoikoaren aintzarako, zabal ta agiri-ko egitea agintzen dogu.

Erroma'n, Jondone Petri'renean, 1963-ko abendua-ren 5-garrean.

Elciza Katolikoaren Gotzaiña nazan PAUL.

## ERABILLITAKO GAIAK

<u>Izenak</u>	<u>Orrialdeak</u>
Agintariak (eta menpekoak, zabalkunde- bideak erabilkeran) . . . . .	19
Albistaritza (onurazkoa ta bearrezkoa; beraren eskubidea). . . . .	11
Antzea (Moralarekiko zer ikusia). . . . .	11-13
Batasuna (apostolutzan) . . . . .	29
Eleiza (ta zabalkunde-bideak) . . . . .	7
Eleiz-gizonak (eta zabalkunde-bideak) . . . . .	7
Erri-gizonak ( > > > ) . . . . .	9
Erritarren eritxiak . . . . .	13
Gazteak (zor yaken begirunea) . . . . .	15-17-19-23-25
Gizartea (lagunarte guztien gain) . . . . .	5-7-11
Guztion ona . . . . .	17
Irratia (eleizarenak zelakoak?) . . . . .	23
Izparringiak . . . . .	21-23
Zabalkunde-bideak (baldintzak eta zertze- ladak) . . . . .	9-11
Zillegiztia (zabalkundean betebearra) . . . . .	9-11-13

## IZTEGIA

Albistaritza . . . . .	<i>información</i>
Aldarrikatu . . . . .	<i>predicar, pregonar</i>
Aldizkari . . . . .	<i>revista</i>
Antze . . . . .	<i>arte, habilidad</i>
Antzerki . . . . .	<i>teatro (obra de)</i>
Aurka . . . . .	<i>contra</i>
Baltsa . . . . .	<i>agrupación</i>
Batzorde . . . . .	<i>comisión</i>
Dagokez . . . . .	<i>egongo dira</i>
Darabagi . . . . .	<i>erabagiten dau</i>
Duintasun . . . . .	<i>dignidad</i>
Edatu . . . . .	<i>difundir</i>
Etekin . . . . .	<i>provecho</i>
Gaizkakunde . . . . .	<i>salvación</i>
Gizadi . . . . .	<i>humanidad</i>
Gizarte . . . . .	<i>sociedad</i>
Idazkaritza . . . . .	<i>secretariado</i>
Irrati . . . . .	<i>radio (emisión)</i>
Izparringi . . . . .	<i>periódico</i>
Jarki . . . . .	<i>oponerse</i>
Lekaide . . . . .	<i>fraile</i>
Onura . . . . .	<i>provecho</i>
Orokor . . . . .	<i>universal</i>
Ugaldu . . . . .	<i>multiplicar, fecundar</i>
Urrutikuskin . . . . .	<i>televisión (aparato)</i>
Urrutikuste . . . . .	<i>televisión (fenómeno)</i>
Zabalkunde . . . . .	<i>difusión, propaganda</i>
Zillegizti . . . . .	<i>moral</i>

## AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz-Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar-Agiriak (Gizarte artu-emonetako bideak)

Itzulpen-billabideak

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek